



[www.begiko.com](http://www.begiko.com)

Jatorrizko izenburua: DIE UNENDLICHE GESCHICHTE  
Liburuaren lehen argitalpena 1979an egin zen.  
Ende, *Die Unendliche Geschichte* © 2004, Thieneman Verlag  
(Thieneman Verlag), Stuttgart/Wien

© Itzulpena: 2019, Idoia Gillenea

© Euskarazko argitalpena:

2019, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon Poligonoa, Gipuzkoa kalea, 31. esk.

48450 Etxebarri

Tel: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-04-9

Lege-gordailua: M-16332-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2019ko otsaila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhoa Basterretxea eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Zuzenketa:

Irurk Itzulpenak eta Josu Goikoetxea

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Rosa Marín, Julia Ortega

eta Álvaro Recuenco

Azala:

José María Lema

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

ISTORIO  
AMAIGABEA

MICHAEL  
ENDE

begiko



## LIBURU SAHARRAK

Idazlea: Karl Konrad Koenig

7

Hori zen denda txiki bateko kristalezko atean zegoen idazkuna, baina, jakina, halaxe ikusten zen soilik denda barruko iluntasunetik kalerantz begiratzen zenean, ateko kristalean barrena.

Kanpoan, azaroko goiz gris eta hotz bat zen, eta euria ari zuen goian behean. Tantak kristalean behera erortzen ziren laster batean, letra apainduen gainetik. Gauza bakarra ikus zitekeen atean barrena: euriak bustitzen zuen kalearen beste aldeko horma.

Bat-batean, atea indar handiz ireki zen, eta gainean zintzilika zituen letoizko kanpaitxoak joka hasi ziren, eta tarte batean halaxe ibili ziren, ezin isildurik.

Zalapartaren eragilea hamar edo hamaika bat urte izango zituen mutiko txiki eta lodi bat zen. Ile gaztinkara bustia aurpegira itsatsita zeukan, berokia blai eginda zeraman, tantaka, eta, uhal batez sorbaldan eskegita, eskolako zorroa zekarren. Zurbil samar zegoen, arnasarik gabe, baina une batzuk lehenago lasterka sartu bazen ere, hantxe gelditu zen atarian, iltzez josi balute bezala.

Mutikoaren aurrean gela luze eta estu bat ageri zen, atzealde argiantzean galduta. Paretetan sabairaino iristen ziren apalategiak zeuden, mota eta neurri guztietako liburuz gainezka.

Lurrean liburutzarrak pilatzen ziren, eta mahaitxo batzuetan larruzko azala zuten eta txikiagoak ziren liburu mordoa zegoen, urrezko bizkar distiratsuak zituztenak. Gelaren beste muturrean, gizaseme bat bezain altua zen liburu horma baten atzean, lanpara baten distira ikusten zen. Noizean behin, argitasun hartatik, ke kiribil bat altxatzen zen, gero eta handiago bihurtu eta gorago desegiten zena, iluntasunean. Gogora ekartzen zituen indiarrek mendiz mendi berriak bidaltzeko erabiltzen zituzten ke seinaleak. Itxura zenez, norbait zegoen han eserita, izan ere, mutikoak ahots zakar bat entzun baitzuen liburu hormaren atzetik.

—Egin ezazu aurrera edo atzera, baina itxi atea. Haizea dabil.

Mutikoak esana egin, eta atea astiro itxi zuen. Ondoren, liburu hormara hurbildu, eta bestaldera begiratu zuen, zuhur. Hantxe, larruzko besaulki belarridun higatu batean, gizon lodikote eta mozkote bat zegoen eserita. Janzki beltz zimurtu bat zeraman; oso erabilia eta hautsez betea ematen zuen. Txaleko loreztatu batek eusten zion sabela. Gizona burusoila zen, eta belarrien gainetik ile zuriko xerlo batzuk erortzen zitzaizkion. Aurpegia gorria zuen, eta hozka egiten duten bulldog bat ekartzen zuen gogora. Koskorrez betetako sudurraren gainean, urrezko betaurreko txiki batzuk zeramatzen. Gainera, uztai moduko pipa bat erretzen ari zen, ezpainen ertzetik zintzilik aho osoa okertzen ziona. Magalean liburu bat zuen; begi-bistan zen irakurtzen ari zela, itxi orduko ezkerreko eskuko hatz erakusle lodia utzi baitzuen orri artean, markagailu gisa nonbait.

Eskuineko eskuarekin betaurrekoak kendu zituen, eta blai-blai eginda zegoen mutiko txiki lodia ikuskatu zuen. Horretarako begiak itxi zituenez, hozka egiteko zorian zegoela zirudien, eta marmar egin zuen:

—Jainkoaren izenean!

Ondoren, liburua osterara ireki, eta irakurtzen jarraitu zuen.

Mutikoak, egia esan, ez zekien zer egin; beraz, hortxe gelditu zen gizonari begira, begiak zabal-zabalik. Azkenean, gizonak liburua itxi zuen, berriz ere hatza orrien artean utzita, eta purrustaka esan zuen:

—Entzun, mutiko, ezin ditut haurrak jasan. Ondotxo dakit modan dagoela zuetaz kezkatzen ibiltzea, baina nik ez dut irentsiko halakorik! Ez zaizkit haurrak batere gustatzen. Negarti huts batzuk besterik ez dira, astun hutsak, den-dena puskatu eta liburuak marmeladaz zikintzen dituzte, orriak urratzen dituzte. Sekula ez zaie bururatzen helduek ere beren kezka eta gorabeherak dituztela. Halaxe esaten dizut non zauden jakin dezazun. Hala ere, nik ez dut haurrentzako libururik, eta ez dizut bestelakorik salduko. Ondo ulertu izana espero dut, beraz!

Pipa behin ere ahotik atera gabe bota zion purrustada. Ondoren, liburua osterara ireki, eta irakurtzen jarraitu zuen.

Mutikoak, isilik, buruaz baietz adierazi eta alde egiteko keinua egin zuen, baina, nolabait, hitz haiek erantzunen bat merezi zutela pentsatu zuen, eta, horregatik, gizonari berriro begiratu, eta ahopean esan zion:

—Haur *guztiak* ez dira horrelakoak.

Gizonak atzera begiratu zion astiro, eta betaurrekoak kendu zituen berriro.

—Oraindik hemen, ala? Esango al didazu zer egin behar dudan zugandik libratzeko? Eta zer da oraintxe esan duzun gauza guztiz garrantzitsu hori?

—Ez du halako garrantzirik —erantzun zuen mutikoak are eta apalago—. Hauxe besterik ez nuen esan nahi: haur guztiak ez direla horrelakoak, zuk esan duzun modukoak.

—Kontxo! —gizonak, harritu plantak eginez, bekainak altxatu zituen—. Orduan, zu zara, nonbait, salbuespen bakarrenetako bat.

Mutiko lodikoteak ez zekien zer esan. Sorbaldak pixka bat altxatu, eta alde egiteko keinua egin zuen oster.

—Hori heziera mutilarena! —entzun zuen gizona purrustaka atzean—. Nork irakatsi dizu horrela jokatzeko? Ganoraz irakatsi balizute, zeure burua aurkeztuko zenuen honezkerok!

10 —Bastian dut izena —esan zuen mutikoak—. Bastian Baltasar Bux.

—Hori izen bitxia —marmar egin zuen gizonak—, hiru B eta guzti. Ez da zure errua, jakina, ez baitzenuen zuk zeuk aukeratu. Nik Karl Konrad Koreander dut izena.

—Hiru K dituzu —esan zuen mutikoak, serio.

—Mmm... —murmurikatu zuen gizonak—. Halaxe da! Ke ufada batzuk bota zituen.

—Hara, berdin du zer izen dugun, ez baitugu berriro elkar ikusiko. Zerbait jakin nahiko nuke, ordea. Zergatik sartu zara arrapaladan nire dendan? Iruditu zait ihesi zentozela. Oker al nago?

Bastianek baietz egin zuen buruaz. Bat-batean, mutikoaren aurpegitxo biribila are eta zurbilago jarri zen, eta begiak, are eta handiagoak.

—Beharbada lapurreta egin berri duzu bankuren batean —susmoa izan zuen Koreander jaunak—, edo adineko emakumeren bat akabatu duzu, edo auskalo zer den gaur egun egiten duzuen. Polizia atzetik duzu, gazte?

Bastianek buruari eragin zion, ezezko keinua eginez.

—Esan ezazu behingoz —estutu zuen Koreander jaunak—. Norengandik zatoz ihesi?



—Besteengandik.  
—Besteengandik?  
—Nire gelako neska-mutilengandik.  
—Zer ba?  
—Ez... ez didate bakean uzten.  
—Zer egiten dizute, ba?  
—Eskola kanpoan egoten dira nire zain.  
—Eta gero, zer?  
—Garrasika hasten zaizkit. Bultza egiten didate, eta barre.

11

—Eta utzi egiten diezu?  
Koreander jaunak mutikoari gaitzespenez begiratu zion une batez, eta, ondoren, galdetu zion:  
—Zergatik ez diezu muturreko bana ematen?  
Bastian begira gelditu zitzaion.  
—Ez, nik ez nuke halakorik egingo. Eta gainera, ez naiz boxeolari ona.  
—Eta bestelako borrokan? Edo lasterketan, igeriketan, futbolean, soinketan? Ez zara ona gainerako kiroletan?  
Mutikoak ezetz egin zuen buruarekin.  
—Bestela esango dizut —esan zuen Koreander jaunak—: pattala zara, ezta?  
Bastianek sorbaldak altxatu zituen.  
—Hitz egiten badakizu, behintzat —esan zuen Koreander jaunak—. Zergatik ez diezu erantzuten zirikatzen zai-tuztenean?  
—Horixe egin nuen behin.  
—Eta?  
—Zakarrontzi batean sartu ninduten, eta estalkia itxi eta lotu zuten. Bi ordu eman nituen garrasika, norbaitek entzun ninduen arte.

—Mmm —marmar egin zuen Koreander jaunak—. Eta orain ez zara ausartzen.

Bastianek buruaz baietz adierazi zion.

—Beraz —ondorioztatu zuen Koreander jaunak—, oilobustia ere bazara.

Bastianek burua makurtu zuen.

—Eta seguruenik ipurtzuria ere bai irakasleekin, ezta? Bikainak ateratzen dituen gelako ikaslerik onena, maisumaistra guztien begikoa, ezta?

12 —Ez —esan zuen Bastianek, begirada oraindik altxatu gabe—, joan den urtean errepikatu egin nuen.

—Jainko maitea! —oihu egin zuen Koreander jaunak—. Hutsaren hurrengoa gainera!

Mutikoak ez zuen txintik ere esan. Hantxe gelditu zen, zutik, besoak zintzilik eta berokia tantaka.

—Zer esaten dizute zirikatzen zaituztenean? —jakin nahi izan zuen Koreander jaunak.

—A, denetatik.

—Esate baterako?

—Potzolo, potzolo, txalupan eroso! Arraunean hasi orduko, atx, hondoratuko! Potzolo, mozolo, lehorrean ere asuntxo.

—Ez gatzik ez piperrik, egia esan —esan zuen Koreander jaunak—. Besterik?

Bastian zalantzan ibili zen, zerrenda egin aurretik.

—Zorua, inozoa, harroputza, gezurtia...

—Zorua, zergatik?

—Batzuetan neure buruarekin hitz egiten dudalako.

—Eta zer esaten diozu, ba, zeure buruari?

—Ipuinak asmatzen ditut, existitzen ez diren izenak eta hitzak, horrelako gauzak.

—Eta zeure buruari kontatzen dizkiozu? Zergatik?

—Ba, ez zaizkiolako beste inori interesatzen.

Koreander jauna hausnarrean gelditu zen une batez.

—Zer diote horri buruz zure gurasoek?

Bastianek ez zuen berehala erantzun. Tarte bat igaro ondoren, marmar egin zuen:

—Aitak ez du ezer esaten. Inoiz ez du ezer esaten. Bost axola zaio dena.

—Eta amak?

—Ama... ez dago gurekin.

—Gurasoak bananduta daude?

—Ez —esan zuen Bastianek—, ama hil egin zen.

Une hartan telefonoak jo zuen. Koreander jauna kostata altxatu zen besaulkitik, eta dendaren atzealdean zegoen gela txiki batean sartu zen, oinak herrestan. Telefonoa hartu eta Bastianek urrunean entzun zuen nola esaten zuen bere izena Koreander jaunak. Orduan, gelaxkako atea itxi zuen, eta hortik aurrera marmarrak besterik ez ziren entzun.

Bastian hantxe gelditu zen. Ez zekien, egia esan, zer gertatu zitzaion, zergatik esan zituen esandako guztiak eta aitortu zituen aitortutako guztiak. Gorroto zuen horrenbeste galderari erantzun beharra. Izerdi patsetan hasi zen bat-batean, eskolara berandu iritsiko zela konturatu zenean. Bizkor ibili beharko zuen, bai horixe, muturrak hausten joan beharko zuen; hantxe gelditu zen, ordea, mugitu ezinik. Zerbaitek geldiarazten zuen, ez zekien zer zen.

Ahots isila entzuten zuen oraindik atzealdeko gelaxkan. Telefono solasaldi luzea zen hura.

Bastian ohartu zen Koreander jaunak esku artean zeukan liburuari begira egon zela denbora guztian; hantxe zegoen orain, larruzko besaulkian. Ezin zion gainetik begirik

kendu. Iman baten ahalmen bazterrezina zuela ematen zuen.

Besaulkira hurbilduzen, eskua pixkana luzatu, eta liburua ukitu zuen. Eta une horretantxe zerbaitek *klik!* egin zion barruan, harrapagailu bat itxi izan balitzaio bezala. Bastiani iruditu zitzaion liburua ukitu izanak, nolabait, atzeraezina zen zerbaiti hasiera eman ziola eta bere bideari ekingo ziola orain.

14 Liburua hartu, eta alde guztietatik aztertu zuen. Azalak kobre koloreko zetazkoak ziren, eta distira egiten zuten liburua mugitu ahala. Orrialdeetan barrena ibili zenean, letrak bi koloretakoak zirela ikusi zuen. Argazkirik ez zuen itxuraz, baina guztiz ederrak ziren hizki larriak zituen atal bakoi-tzaren hasieran. Azala arreta handiagoz aztertu zuenean, bi suge hauteman zituen, bata argia eta bestea iluna. Elkarren isatsari hozka egiten zioten, obalo bat osatu arte. Eta obaloan, letra katramilatatu bitxietan, izenburua irakurri zuen:

## ISTORIO AMAIGABEA

Gizakien pasioek badute zer edo zer misteriotsua, eta bai haurrei bai helduei gauza berbera gertatzen zaie. Pasioen eraginpean bizi direnek ezin dituzte azaldu, eta sekula bizi izan ez dituztenek ez dituzte ulertzen. Batzuek bizia arriskuan jartzen dute mendi baten gailurrera iristeko. Inork ezin du argitu zergatik egiten duten, ezta haiek ere. Beste batzuek, berriz, galbidean jartzen dute beren burua haietaz ezertxo ere jakin nahi ez duen pertsona baten bihotza bereganatzeko. Eta badira beren burua hondatzen dutenak ere, janari edo edanari uko egiten ez dakitelako. Beste batzuek, aldiz, jabetza guztiak galtzen dituzte zorizko joko bat irabazteko, edo

beren buruari uko egiten diote sekula gauzatuko ez den helburu bat lortzeko. Batzuek uste dute zoriontsu izango direla beste nonbait baldin badaude, eta bizitza osoa ematen dute leku batetik bestera, munduan barrena bidaian. Beste batzuk ez dira lasaitzen boteretsu bihurtzen diren arte. Labur esateko, norbanako adina pasio dago munduan.

Bastian Baltasar Buxen pasioa liburuak ziren.

Sekula ez badituzu arratsalde osoak eman belarriak gorri-gorri eginda eta ilea nahas-mahasean liburu baten aurrean eta mundua alde batera utzita, goseak edo hotzak zauden nabaritu gabe...

15

Sekula ez baduzu irakurri maindire azpian, esku-argi baten laguntzaz, amak edo aitak edo asmo oneko beste pertsonaren batek argia itzali duelako, bihar goiz jaiki behar duzun aitzakiaz oheratu behar duzula esan dizulako...

Sekula ez baduzu tristuraren tristuraz negar egin, isilean edo agerian, istorio zoragarri bat amaitu delako eta zurekin horrenbeste abentura bizi izan dituzten pertsonaiei agur esan behar diezulako, zeinak maite eta miretsi izan dituzun beldurra eta itxaropena eragin dizkizutelako eta haien lagunarterik gabe bizitzak hutsa eta zentzurik gabea dirudielako...

Sekula ez baduzu halako bizipenik izan, ezingo duzu seguruenez ulertu Bastianek une horretan egin zuena.

Liburuaren izenburuari tinko begiratu zion, eta hotza eta beroa nabaritu zuen, txandaka. Han aurrean zuen amets egindakoa eta pasioak harrapatu zuenetik betidanik desio izan zuena: sekula amaituko ez zen istorio bat! Liburuaren liburua!

Liburuak beretzat izan behar zuen, kosta ahala kosta!

Kosta ahala kosta? Erraza zen hori esatea. Sakelan zituen hiru marko eta hamabost penny baino gehiago eskaintzeko

modua balu ere, Koreander jaun erretxin hark argi eta garbi eman zion aditzera sekula ez ziola libururik salduko. Eta, jakina, oparitzeko asmorik ere ez zuen. Itxaropenik ez, beraz...

Bastianek bazekien, ordea, ezin zuela liburu hura gabe alde egin. Orain argi zuen liburu horregatik bakarrik sartu zela dendan. Modu misteriotsuan dei egin zion, berea izan behar zuelako, nolabait, betidanik berea izan zelako!

16 Bastianek adi entzun zuen gelaxkatik zetorren marmarra. Ohartu baino lehen, liburu beroki barruan zuen, bi besoen artean estaturik. Soinurik egin gabe, atzerantz ibiliaz abiatu zen dendako aterantz, urduri, begirik kentzen ez ziola beste ateari, gelaxkara ematen zuenari. Kontu handiz, heldulekuari eragin zion. Letoizko kanpaitxoekin soinua saihestu nahi zuen, horregatik handik ateratzeko moduko tarte bakarrik ireki zuen. Isilik eta zuhur, atea itxi zuen kanpotik.

Orduan lasterka hasi zen.

Eskolako zorroan zituen koadernoak, testuliburuak eta lapitzak saltoka zebiltzan hara-hona mutikoaren urratsen erritmoan. Ziztadak sentitzen zituen saihetsean, baina ez zion lasterka egiteari utzi.

Euri tantak aurpegian irristan jaitsi, eta lepotik beherra sartzen zitzaizkion. Hezetasunak eta hotzak berokia zeharkatzen zioten, baina Bastianek ez zuen nabaritzen. Bero-bero zegoen, eta ez lasterketagatik bakarrik.

Liburu dendan lozorroan izan zuen kontzientzia iratzarri egin zitzaion bat-batean. Orduan horren sinesgarriak egin zitzaizkion arrazoiak, bat-batean funsgabeak iruditu zitzaizkion; herensuge baten suzko arnasan urtzen den elurrezko panpinaren antzera desegin ziren.

Lapurtu egin zuen. Lapurra zen!

Lapurreta baino are gauza askoz okerragoa zen egin berri zuena. Liburu hura bere gisako bakarra zen, eta ordezkaezina. Ziurrenik, Koreander jaunaren altxor handiena zen. Biolinista bati bere biolin preziatua edo errege bati bere koroa lapurtzea ez zen banketxe batetik dirua eramatea bezala.

Lasterka zihoala, liburua estutzen zuen berokiaren barruan. Ez zuen galdu nahi, garesti aterako bazitzaion ere egingakoa. Mundu honetan gelditzen zitzaion gauza bakarra zen.

Orain ezin baitzen, noski, etxera itzuli.

Aita irudikatzen ahalegindu zen, haren gela handian, laborategi eta langela gisa atondutako hartan. Aitaren inguruan dozenaka giza hortz-haginen igeltsuzko moldeak zeuden, aita hortz teknikaria baitzen. Bastianek sekula ez zion galdetu bere buruari ea aitari lan mota hura gustatzen ote zitzaion. Hura zen bururatzen zitzaion lehen aldia, baina ezin izango zion sekula galdetu.

Etxera joango balitz orain, aita mantal zuriarekin aterako litzateke laborategitik, beharbada eskaiolazko molderen bat eskuan, eta halaxe galdetuko lioke:

—Jada etxean?

—Bai —esango luke Bastianek.

—Ez duzu eskolarik gaur, ala?

Aitaren aurpegi lasai eta tristea ikusiko zuen, eta jakingo zuen ezin ziola gezurrik esan. Baina egia ere ezingo zion aitortu. Ez, egin zezakeen gauza bakarra alde egitea zen, edonora, oso urruti. Aitak ez zuen jakin behar semea lapur bihurtu zela. Eta beharbada ez zen konturatu ere egingo Bastian desagertu egin zela. Burutapen horrek kontsolatu ere egiten zuen.

Lasterka egiteari utzi zion. Mantso zihoan orain, eta kalearen beste muturrean eskola ikusi zuen. Pentsatu gabe, eskolara bidean zihoan. Kalea hutsik zegoela iruditu zit-

zaion, nahiz eta jendea zebilen han-hemenka. Baina oso berandu dabilen ikasle bati eskola inguruko mundua hilik dagoela iruditzen zaio. Eta Bastiani, urrats bakoitzean, beldurra areagotzen zitzaion. Nolanahi ere, eskolaren beldur zen, eguneroko porroten lekua baitzen; maisu-maistren beldur zen, adeitsuki kargu hartu edo haserre errieta egiten ziotenak; beste neska-mutilen beldur zen, zirikatu egiten zutenak eta aukerarik galtzen ez zutenak zein baldarra eta babesgabea zen erakusteko. Eskola espetxe zigor luze amai-gabea iruditu zitzaion beti, heldu bihurtu arte iraungo zuena, eta mutu eta etsian bete beharko zuena.

Oihartzunez beteriko korridorean barrena zihoala, zein-nean argizariaren eta beroki bustien usaina nagusitzen zen, zelatan zuen eraikineko isiltasunak kotoia balitz bezala itxi zizkion belarriak; inguruko pareta guztien antzera espina zaharren kolorea zuen ikasgelako atera iritsi zenean konturatu zen hura ere ez zela berarentzako lekua. Alde egin beharko zuen. Hobe zuen, beraz, berehala joatea.

Nora, ordea?

Bastianek bere liburuetan irakurriak zituen ontzi batean itsasoratu eta mundu osoan barrena fortuna bila ibili ziren mutikoen kontakizunak. Batzuk pirata edo heroi bihurtu ziren; beste batzuk, berriz, aberastu eta geroago etxera itzuli zirenean, inork ez zuen asmatzen nor ziren.

Baina Bastian ez zen halakorik egitera ausartzen. Ezin zuen imajinatu ere egin inork ontzi-mutil hartuko zukeenik. Gainera, ez zekien zer demontre egin behar zuen itsas portu batera joateko eta halako ausarkeriak burutzeko.

Nora joan zitekeen?

Bat-batean, leku aproposa bururatu zitzaion, inork bilatu eta aurkituko ez zuen leku bakarra, oraingoz behintzat.



Eskolako ganbara handia eta iluna zen. Hauts eta naf-talina usaina zuen. Ez zen soinurik entzuten, teilatutza-rreko kobrezko xaffen gainean euri tantek egiten zuten errepika goxoa ez bazen behintzat. Denborak belzututako habe sendoak zutitzen ziren tarterik tarte lureko ohol-tzatik, eta elkartu egiten ziren goiko aldean teilatuko habe nagusiekin, iluntasunean galduz. Han-hemenka hamakak bezain handiak ziren armiarma sareak zintzilikatzen zi-ren, eta haizexkak arinki eta mamuen antzera kulunka-tzen zituen sareok. Goitik, argi zulo batetik, argi esnekara sartzen zen.

19

Denbora gelditutako leku hartan, inguruko izaki bizi-dun bakarra sagu txiki bat zen, oholtzan saltoka zebilena, hautsean arrasto ñimiñoak utziz eta, haien artean, lerro mehe bat, isatsaren lerroarena, hain zuzen. Bat-batean, seko gelditu, eta begi-belarri egon zen. Eta ondoren, zazt!, lureko zulo batetik desagertu zen.

Sarraila handian sartutako giltza baten hotsa entzun zen. Ganbarako atea astiro eta kirrinka batez ireki zen, eta, une batez, argi printza luze batek zeharkatu zuen gela. Bas-tian barrura lerratu zen, eta, ondoren, atea ostera itxi zuen kirrinka batez, hari bultza eginez. Bastianek giltza handia sartu zuen sarrailan, barrutik, eta bira bat eman zion. On-doren, kisketa ere eman zuen, eta lasaitu ederra hartu zuen. Ezingo zuten han aurkitu. Han ez zuen inork bilatuko. Oso gutxitan erabiltzen zuten ganbara —horretaz ziur ze-goen—, eta txiripaz inork eginkizunen bat bazuen ganba-ran egun hartan edo hurrengoan, atea itxita aurkituko zuen. Giltza ez zegoen jadanik han. Eta inork atea irekitzea lortuko balu ere, Bastianek nahi adina denbora izango luke ganbaran biltegitatuta zeuden trasteen artean ezkutatzeko.

Pixkana, begiak ilunantzera ohitzen hasi zitzaizkion. Ezagutzen zuen lekua. Urte erdi lehenago, eskolako atezainak eskatu zion inprimakiz eta agiriz betetako saski handi bat ganbarara eramaten laguntzeko. Orduan ikusi zuen Bastianek non gordetzen zuten ganbarako ateko giltza: paretan sartutako armairu txiki batean, goiko eskailera buruan. Harrezkero ahaztua zuen, baina egun hartan gogora etorri zitzaion.

20 Bastian dardarka hasi zen; berokia mela-mela eginda zuen, eta ganbaran hotz egiten zuen. Lehendabizi, erosoago egoteko leku bat aurkitu behar zuen; azken batean, denbora luzez gelditu beharko zuen ganbaran. Zenbat, baina... Ez zuen horren gainean pentsatu nahi, ez, eta laster goseak eta egarriak egongo zela ere ez.

Atzera eta aurrera hasi zen ganbaran. Mota guztietako trasteak zeuden zutik edo botata: karpeta eta aspaldi erabiltzen ez ziren espedientez betetako apalak; tintaz zikindutako ikasmahaiak, bata bestearen gainean pilatuta; dozena bat mapa zahar euskarri batetik zintzilika; kolore beltz zartatua zuten arbelak, burdinazko berogailu herdoilduak; eta soinetako aparatu erabilgaitzak, esate baterako, larru hauskorren zirrikietatik barrubetea ateratzen zitzaion jauzitarako zaldia, baloi sendagarri lehertuak eta koltxoneta zahar zikin piloa. Gainera, animalia disekatu bakar batzuk —sitsek utzitakoa, behintzat—, hontz handi bat, arrano beltz bat eta azeri bat, mota guztietako probeta eta tresneria kimiko hautsia, galbanometro bat, giza eskeleto bat arroparentzako armairu antzeko batetik zintzilika, eta koaderno zaharrez eta eskola liburuz betetako kutxatila eta kutxatzar ugari. Bastianek, azkenean, koltxoneta zahar piloa aukeratu zuen bere egonaldirako. Gainean etzatean, sofa bat ematen zuen ia. Arrastaka

eraman zituen argi zuloaren azpira, han argitasuna baitzegoen. Inguruan armadako tapaki gris mordo bat zegoen pilatuta, hautsez beteak eta urratuak, jakina, baina guztiz erabilgarriak. Bastian haien bila joan zen. Beroki bustia kendu zuen, eta eskeletoaren ondoan zintzilikatu zuen armairuan. Hezurdura atzera eta aurrera kulunkatu zen, baina Bastian ez zen haren beldur, beharbada etxean halako gauzak ikustera ohituta zegoelako. Blai eginda zituen botak ere kendu zituen. Galtzerditan, koltxoneten gainean eseri zen, eta sorbaldak inguratu zituen tapaki grisekin, indiarren antzera. Aldamean eskolako zorroa zuen, eta kobre koloreko liburua.

21

Ikaskideak etorri zitzaizkion gogora, beheko ikasgelan, Gizarteko orduan egongo zirenak. Beharbada gai aspergarri bati buruzko testuren bat ariko ziren idazten.

Bastianek liburuari begiratu zion.

—Jakin nahi nuke... —esan zuen bere kolkorako— zer gertatzen den liburu batean itxita dagoenean. Jakina, paperean inprimatutako letraz beteta dago, besterik gabe, baina zerbait gertatzen da hor, ireki bezain azkar istorio bat hasten delako. Ezagutzen ez dudan jendea dago bertan, oraindik ezagutzen ez dudan jendea, eta mota guztietako abenturak, ekintzak eta borrokak. Eta, batzuetan, ekaitzak lehertzen dira itsasoan, edo atzerriko herrialde edo hirietara iristen zara. Gauza horiek guztiak aurretik daude jada. Jakin nahi nuke nola.

Bat-batean, festa giro antzeko batek inguratu zuen.

Tente eseri zen, liburua hartu zuen, lehen orritik ireki zuen eta

## ISTORIO AMAIGABEA

irakurtzen hasi zen.



1

*Fantasia, arriskuan*





nimalia guztiak salbu zeuden Hauleko Basoko leize zulo, habia eta gordelekuetan.

Gauerdia zen, eta haize ekaiztsuak zuhaitz zahar erraldoietako adaburuak astintzen zituen. Dorreen moduko enbor lodiek karranka eta intziri egiten zuten.

Bat-batean, distira leun batek zeharkatu zuen sigi-saga basoa; batean eta bestean gelditu eta dardarka ibili zen, airean altxatu, adar batean paratu, eta ostera alde egin zuen presaka. Haur baten pilota baten neurriko biribilki distiratsua zen; jauzi handiak egiten zituen, lurra ukitzen zuen noizean behin eta ostera aireratzen zen. Ez zen pilota bat, ordea.

Argi-txakur bat zen. Bidea galdua zebilen. Eta bidea galdu duen argi-txakur bat gauza bakana da Fantasian, normalean argi-txakurrek galarazten baitiote bidea jendeari.

Argi biribilkiaren barruan bizitasun handia zuen irudi txiki bat ageri zen, indar handiz lasterka eta saltoka egiten zuena. Ez zen ez ar ez eme, ez baitago halako berezitasunik argi-txakurren artean. Eskuineko eskuan, bandera zuri txiki-txiki bat zeraman, atzealdean inarrosten zena. Mezulari edo negoziatzaile bat behar zuen izan, beraz.

Ez zegoen enbor baten kontra jotzeko arriskurik iluntasunean egiten zituen jauzietan, argi-txakurrak guztiz arinak eta iaioak baitira, eta norabidea alda baitezakete jauzi baten erdian. Horregatik zebilen sigi-saga, baina, oro har, gehienetan, norabide jakin batean mugitzen dira beti argi-txakurrak. Irtengune harritsu batera iritsi zenean, ordea, atzerantz egin zuen ikaratuta. Hatsanka, txakur txiki baten antzera, zuhaitz baten hutsartean eseri zen, eta hausnarrean gelditu zen une batez, berriz ere irten eta, arretaz, arrokaren beste aldera begiratu baino lehen.

Aurrean, soilgune bat zegoen, eta hantxe eserita, su baten argitan, neurri eta forma guztiz bestelakoak zituzten hiru irudi zeuden. Erraldoi bat, osorik harri grisez egina zirudiena, etzanda zegoen bere sabelaren gainean. Hamar bat oin<sup>1</sup> izango zituen. Gorputzaren goiko aldea ukondoetan bermatzen zuen, eta suari begira zegoen. Harrizko aurpegi higatuan —harrigarri txikia, sorbalda zabalaren ondoan— hortzak nabarmentzen zitzaizkion, altzairuzko zizel ilara bat balira bezala. Argi-txakurra berehala ohartu zen erraldoia harrijaleen motakoa zela. Izakiok Hauleko Basotik izugarri urrun zeuden mendi batzuetan bizi ziren, baina ez ziren soilik mendietan bizi, haietatik ere bizi ziren, apurka-apurka jan egiten baitzituzten. Harriak ziren jaki bakarra haientzat. Zorionez, kontentaerrazak ziren, eta haientzat guztiz elikagarria zen jaki horren mokadu bakar batekin asteak eta hilabeteak irauten zuten. Harrijale gutxi zegoen, eta, gainera, mendiak oso handiak ziren. Erraldoiak aspalditik han bizi zirenez gero —Fantasiako biztanleak baino adinean zaharragoak izaten ziren—, mendiek, denboran

<sup>1</sup> Luzera neurri zaharra, 30 bat cm-ren baliokidea.



zehir, itxura bitxia hartu zuten. Zuloz eta irekigunez betetako emmental gazta erraldoi bat zirudien. Horregatik deitzen zieten Mendi Zulodunak.

Harrijaleak ez ziren soilik harriz elikatzen, behar zuten guztia egiten baitzuten haiekin: altzariak, kapelak, zapatak, tresnak, baita kuku-erlojuak ere. Ez zen harritzekoa, beraz, harrijale hark, atzean, gai horrez egindako bizikleta antzeko bat izatea, errota harri sendoen itxura zuten bi gurpilekin. Osorik hartuta, bizikletak zapalgailu pedaldun bat ematen zuen.

Bigarren irudia, suaren eskuinean eserita, inguma edo iratxo txiki bat zen. Ez zen argi-txakurra baino bi bider handiagoa izango, eta bikea bezain beltza zen beldar bat zirudien, larruz estalia. Imintzioka hitz egiten zuen, kolore arrosako bi esku txiki-txiki mugituz, eta ile beltz nahasien azpian ustez aurpegia izan behar zuen tokian, bi begi handi zituen sutan, ilargiak bezain biribilak.

Neurri eta forma guztietako ingumak zeuden Fantasian nonahi, beraz, ezin zitekeen asmatu hura ikusita gertutik edo urrunetik zetorren. Hala ere, bidaiari zebilela ematen zuen, ingumen zelabere ohiko bat, saguzar handi bat, zintzilika baitzegoen buruz behera atzean zuen adar batetik, hegoen artean bilduta, aterki itxi bat balitz bezala.

Argi-txakurrak tartetxo bat behar izan zuen suaren ezkerreko aldean zegoen hirugarren irudia ikusteko, horren txikia zenez, zaila baitzen distantzia hartan ikustea. Ñimiñotarren motakoa zen, morroi fin-fina, kolore askotako janzki bat eta buruan kapela luze gorri bat zeramatzan.

Argi-txakurrak ezer gutxi zekien ñimiñotarrei buruz. Behinola entzun zuen esaten ñimiñotarrek hiri osoak eraikitzen zituztela zuhaitzen adarretan, eta, horregatik, etxetxoak

elkartu egiten zituztela eskailetar txo, soka zurubi eta txirris-  
ten bidez. Ñimiñotarrak, ordea, Fantasiako mugarik gabe-  
ko erresuman guttiz bestelakoa zen leku batean bizi ziren,  
harrizaleak baino askoz ere leku urrunago batean. Horrega-  
tik, are harrigarriagoa zen ñimiñotarrak aldamenen zuen  
zelaberea barakuilu bat izatea. Haren atzean zegoen. Kolo-  
re arrosako maskorraren gainean, zilarrezko zela txiki ba-  
tek distira egiten zuen, eta adarre lotuta zituen bridek eta  
ahokoak ere zilarrezko harien antzera distira egiten zuten.

28

Argi-txakurrari miresgarria iruditu zitzaion horren des-  
berdinak ziren hiru izakiak elkarren ondoan bake giroan  
eserita egotea, normalean bakea eta adiskidetasuna ez bai-  
tziren nagusitzen Fantasiako biztanleen artean. Liskarrak  
eta gerrak sarri gertatzen ziren, mendeetako areriotasunak  
zeuden izaki mota askoren artean eta, are gehiago, izaki  
zintzo eta onez gainera, alprojak, zitalak eta ankerrak ere  
baziren. Gure argi-txakurra, hain zuzen, sinesgarritasun  
eta fidagarritasun eskasa zuen familia bateko kidea zen.

Une batez su inguruko irudia aztertu ondoren, argi-  
txakurra ohartu egin zen hirurek banderatxo edo zapi zuri  
bana zeramatela bularraldean zeharkatuta. Mezulariak edo  
negoziatzaileak ziren, hortaz, eta horregatik zuten horren  
jokabide baketsua.

Azken batean, arrazoi beragatik ari al ziren bidaiatzen  
denak? Argi-txakurraren arrazoi beragatik?

Izaki haiek esaten zutena ezin zen urrunetik entzun,  
haize zakarrak gogor astintzen baitzituen adaburuak. Baina  
mezulariak ziren aldetik elkar errespetatzen zutenez gero,  
litekeena zen argi-txakurra kideztat hartu eta kalterik ez  
egitea. Norbaiti galdetu behar zion zein zen bide zuzena,  
aukera gutxi izango baitzituen basoaren eta gauaren erdian.

Adorez ekin zion, beraz; ezkutalekutik irten zen, banderatzatxoa zuria astindu eta dardarka gelditu zen airean.

Harrijalea izan zen argi-txakurra ikusten lehena, bideari begira baitzegoen.

—Trafiko ugari dago gaur gauean —esan zuen ahots karrenkariz—. Hara non datorren beste bat.

—Aiei, argi-txakur bat! —xuxurlatu zuen ingumak, eta haren ilargi antzeko begiek dir-dir egin zuten—. Urte askotarako, urte askotarako!

Ñimiñotarra zutitu egin zen, urrats batzuk eman zituen etorri berriarengana eta txorrotxio egin zuen:

—Zuzen banago, zu ere mezulari gisa zaude hemen, ezta?

—Bai —esan zuen argi-txakurrak.

Ñimiñotarrak kapela luze gorria kendu zuen, burua zertxobait makurtu eta txio egin zuen:

—Oi, zatoz gugana, arren. Gu ere mezulariak gara. Eser zaitez gure artean.

Eta suaren ondoan hutsik zegoen tokira gonbidatu zuen, kapelatxoarekin keinu bat eginez.

—Eskerrik asko —esan zuen argi-txakurrak, eta lotsati hurbildu zen—, barka atrebentzia. Utz iezadazue nire burua aurkezten: Blubb dut izena.

—Urte askotarako —erantzun zuen ñimiñotarrak—. Ni Ukuk naiz.

Inguma altxatu gabe makurtu zen.

—Nik Wuswusul dut izena.

—Pozten nau zu ezagutzeak —karranka egin zuen harrijaleak—. Ni Piornkratzak naiz.

Hirurek argi-txakurrari begiratu zioten, eta hark estutasunez begiratu zuen beste alde batera. Argi-txakurrentzat oso desatsegina da inork zuzen begiratzea.

—Eseri nahi duzu, Blubb maitea? —galdetu zion ñimiñoak.

—Egia esan —erantzun zuen argi-txakurrak—, presaka nabil, eta galdetu besterik ez nizuen egin nahi zein den hemendik Bolizko Dorrera iristeko bidea.

—Aiei! —esan zuen ingumak—. Haur Enperatriza ikusterazoa?

—Halaxe da —esan zuen argi-txakurrak—. Garrantzi handiko mezu bat dut harentzat.

30

—Zer mezu da, ba? —karranka egin zuen harrijaleak.

—Hara... —argi-txakurrak soineko zama eraman zuen oin batetik bestera—, mezu sekretu bat da.

—Gu hirurok zure eginkizun berbera dugu, ufa! —erantzun zion Wuswusulek—. Lagun artean gaude, beraz.

—Beharbada mezu berbera daramagu —esan zuen Ukuk ñimiñotarrak.

—Eseri eta kontatu! —esan zuen Piornkratzakek kirrinka eginez.

Argi-txakurra hutsik zegoen lekuan eseri zen.

—Nire aberria —hasi zen, une labur batez zalantzan ibili ondoren— hemendik oso urrun dago. Ez dakit hemengo inork ezagutuko duen. Zingilizun du izena.

—Aiei! —hasperen egin zuen ingumak—. Eskualde zoragarria!

Argi-txakurrak indarrrik gabe egin zuen irribarre.

—Bai, ez al da hala?

—Hori al da guztia? —kirrinka egin zuen Piornkratzakek—. Eta zergatik ekin diozu bidaiari, Blubb?

—Zingilizunen —jarraitu zuen hitz etenez argi-txakurrak— zerbait gertatu da, ulertzen oso zaila den zerbait. Oraindik... oraindik ere gertatzen ari da. Oso... oso zaila da

azaltzen... nola hasi zen guztia... Hara, gure herrialdearen ekialdean aintzira bat dago... edo, zuzen esanda, zegoen... Saldabero zuen izena. Eta guztia hasi zen behin batean Saldabero aintzira jadanik ez zegoelako... Desagertu egin zen besterik gabe, ulertzen?

—Zer esan nahi duzu? —galdetu zuen Ukukek—. Agortu egin zela?

—Ez —esan zuen argi-txakurrak—, hala balitz, aintzira agortu bat egongo litzateke bertan. Baina ez dago aintzararik. Aintzira zegoen tokian ez dago ezer, ezertxo ere ez, ulertzen?

—Zulo bat? —marmar egin zuen harrijaleak.

—Ez, zulorik ez —argi-txakurrak etsiak hartuta zirudien—, zulo bat zerbait da behintzat. Han ez dago ezer, ordea.

Beste hiru mezulariek elkarri begiratu zioten.

—Zer itxura du... aiei... ezerez horrek? —galdetu zuen ingumak.

—Horixe da, hain zuzen, azaltzen zaila —segurtatu zuen argi-txakurrak, atsekabetuta—. Ez du ezeren antzik. Zera... zera bezalako da... atx, ez dago horretarako hitz egokirik.

—Adibidez —iradoki zuen ñimiñotarrak—, itsu bazeunde bezala leku horretara begiratzen duzunean?

Argi-txakurrak aho zabalik begiratu zion.

—Hain xuxen ere! —oihu egin zuen—. Baina nondik... alegia, nola ezagutzen duzue halakorik?

—Unetxo bat! —karranka egin zuen harrijaleak—. Leku bakar batean gertatu da?

—Hasieran, bai —azaldu zuen argi-txakurrak—. Leku hura gero eta handiagoa bihurtu zen. Eskualdean, nolabait,

gero eta gauza gehiago falta ziren. Saldabero aintziran familia osoarekin bizi zen Umpf txantxiku zaharra desagertu egin zen bat-batean. Beste biztanle batzuk ere ihes egiten hasi ziren. Eta pixkana gauza berbera gertatu zen Zingilizuneko beste leku batzuetan. Zenbaitetan, hasieran, oso gauza txikia zen, ez zen ezer, uroilo baten arrautzaren modukoa. Baina gauza txiki hori zabaldu egiten zen. Inork, nahi gabe, oinaz ukitzen bazuen leku horietakoren bat, oinaz edo eskuaz edo dena delakoaz, desagertu egiten zen. Ez zuen minik ematen, bide batez; dena delakoari, bat-batean, zati bat falta zitzaion, besterik gabe. Batzuek nahita ere bota izan dute beren burua ezerezera, gehiegi hurbilduz gero. Erakarmen ikaragarria du: zenbat eta handiagoa izan lekua, orduan eta erakargarriagoa da. Gutako inork ezin izan du argitu zer izan litekeen gauza ikaragarri hori, nondik etorri zen, eta zer egin genezakeen haren aurka. Eta ez zenez berez desagertzen, eta gero eta gehiago zabaltzen zenez, azkenean erabaki bat hartu genuen, Haur Enperatrizari mezulari bat bidaltzea aholku eta laguntza eske. Eta mezulari hori ni neu naiz.

Beste hirurek aurrera begira jarraitu zuten, isilik.

—Aiei —esan zuen ahots kekatiz ingumak tarte bat igaroro ondoren—. Gauza berbera gertatzen da nire eskualdean. Eta ni neu eginkizun berberarekin abiatu naiz, aiei!

Ñimiñotarrak argi-txakurrari begiratu zion.

—Gutako bakoitza —txorrotxio egin zuen— Fantasiako lurralde batetik dator. Ustekabean elkartu gara hemen. Baina gutako bakoitzak mezu berbera darama Haur Enperatrizarentzat.

—Alegia —kirrinka egin zuen harrijaleak—, Fantasia osoa arriskuan dagoela.

Argi-txakurrak banan-banan begiratu zien, guztiz bel-  
durturik.

—Hala bada —oihu egin eta jauzi egin zuen—, ez dugu  
denbora alferrik galdu behar!

—Oraintxe ginen alde egitekoak —azaldu zuen ñimi-  
ñotarrak—. Atsedean hartzera gelditu gara, ikaragarri ilun  
dagoelako Hauleko Basoa. Baina orain gurekin zaudenez,  
Blubb, bidea argitzerik izango duzu.

—Ezinezkoa da! —esan zuen argi-txakurrak—, barka-  
tuko didazue, baina ez naiz barakuilu baten gainean dabilen  
inoren zain egongo!

—Lasterketa barakuilua da eta! —esan zuen ñimiñota-  
rrak haserre samar.

—Eta gainera, aiei —xuxurlatu zuen ingumak—, bestela  
ez dizugu esango norabide zuzena zein den!

—Norekin ari zarete hizketan? —kirrinka egin zuen ha-  
rrijaleak.

Izan ere, argi-txakurrak izan zuen azken hitza, ez  
bai-tzuen entzun beste mezulariek esandakoa, ordurako  
basoan barrena aldentzen ari baitzen jauzi handiak ema-  
nez.

—Tira —esan zuen Ukukek, ñimiñotarrak, kapela luze  
gorria garondora eramaten zuela—, beharbada ez zen ego-  
kiena argi-txakur bat eramatea biderako argi gisa.

Barakuilu lasterkariaren zelara salto egin zuen.

—Nik ere, egia esan —adierazi zuen ingumak, *aiei* isil  
batez saguzarrari dei egiten ziola—, nahiago nuke nor bere  
kasa joatea. Ni, behintzat, hegan joan naiteke!

Eta zazt!, alde egin zuen.

Harrijaleak sua itzali zuen; horretarako, esku, ahurra  
besterik ez zuen behar izan.

—Nik neuk ere nahiago dut bakarrik ibili —entzun zen karranka iluntasunean—, horrela ez dut izakitxoren bat zalpaltzen dudan edo ez kezkatzen ibili beharko.

Harrizko bizikleta handiak egiten zituen krakatekoak eta kraskak entzun ziren basoan barneratu zenean. Noizean behin zuhaitz erraldoi baten kontra jotzen zuen, eta kirrinkak eta karrankak entzuten ziren. Astiro, zalaparta aldenduz joan zen iluntasunean.

34 Ukuk, ñimiñotarra, bakarrik gelditu zen atzean. Zilarezko bridak hartu, eta esan zuen:

—Ederki, ikusiko dugu nor iristen den lehenbizi. Arre, xaharra, arre!

Eta klaska egin zuen mihiaz.

Ondoren, haize ekaiztsua besterik ez zen entzun, Hauleko Basoko zuhaitz adaburuetan txistuka.

Aldameneko dorreko erlojuak bederatziak jo zituen.

Bastian gogo txarrez itzuli zen errealtatera. Eskerrak *Istorio Amaigabeak* ez zuen egunerokotasunarekin zerikusirik. Ez zitzaizkion batere gustatzen modu ospintsu eta aspergarrian jende arruntaren bizitza arruntetako gertakari arruntak kontatzen zituzten liburuak. Jadanik halako errealtatetik nahikoa zuen. Zergatik irakurri behar ziren, beraz, halakoei buruzkoak? Bestalde, sutan jartzen zen inork kontentzitu nahi zuela konturatzen zenean. Eta liburu horietan, gehiago edo gutxiago, horretan saiatzen ziren idazleak.

Bastianek nahiago zituen liburu zirrargarriak, alaiak edo amets egitera bultzatzen zutenak; sekulako abenturak bizi zituzten pertsonaia asmatuak zituztenak, denetatik imajinarazten zutenak.



Gauza batean baitzen ona Bastian; gauza bakarrean, agian: horren ondo imajinatzen zituen gauzak, ezen haiek ikustera eta entzutera ere iristen baitzen. Bere buruari istorioak kontatzen zizkionean, inguruan zuen guztia ahazten zitzaion, eta ez zen amaiera arte esnatzen zen soilik, amets batetik bezala. Eta esku artean zuen liburu hura, hain zuzen, bere istorioak bezalakoa zen! Irakurri ahala, zuhaitz erraldioen karraskak entzuteaz gainera, adaburuetan haizeak egiten zituen orroak ere iritsi zitzaizkion, baita lau mezulari barregarrien ahotsak ere; basoko goroldioaren eta lurraren usaina ere hauteman zitzakeen ia!

Behean, ikasgelan, laster hasiko zuten Naturreko ordua; lore orratzak eta lorezilak zenbatzea izaten zen ariketa nagusia. Bastian pozik zegoen ezkutalekuan egoteaz eta irakurtzeko aukera izateaz. Huraxe zen berarentzako liburua, pentsatu zuen, bete-betean!

Astebete geroago Wuswusul, inguma txikia, helmugara iritsi zen. Lehenengoa zen. Edo, hobeto esanda, lehengoa zela sinetsita zegoen, airean hegan joan baitzen.

Eguzkiak sartzeko ordua zuen, eta ilunabarreko hodeiek urre urtua ziruditen; orduan ohartu zen saguzarra Labirintoaren gaineratik zebilela jadanik. Zabaldi izugarri handi baten izena zen, zeina hodeiertzetik hodeiertzera zabaltzen baitzen; lorategi itzel bat besterik ez zen, azken batean, lurrin asaldatzailez eta kolore zoragarritz betea. Zuhaiak, hesi, belardi eta lore harrigarri eta bitxienak zituzten lore sailen artean, bide zabal eta bidexka estuak marrazten ziren horren modu artistiko eta antolaera korapilatsuan, non zabaldi osoak labirinto izugarri hedatsu bat ematen baitzuen.

Jakina, labirintoa atsegin eta jolas hutserako sortua zen, inor arriskuan jartzeko asmorik gabe, are gutxiago etsaiak uxatzeko asmoz. Ez luke horretarako balioko, eta Haur Enperatrizak ez zuen halako babes baten beharrik ere. Fantasiako mugarik gabeko erresuma osoan ez zuen zertan inorengandik babestu. Laster jakingo dugu zergatik.

Lorez betetako labirintoaren gainetik, zaratarik egin gabe, saguzarraren gainean hegaldatzen ari zelarik, ingumak era askotako abere bitxiak ikusi zituen. Amañi-lili eta laburnum artean irekitzen zen soilgune txiki batean, adarbakar gazte saldo bat jolasten zen ilunabarreko eguzkitan, eta, halako batean, kanpai-lore urdin erraldoi baten azpian, fenix famatua bere habian ikusi zuela iruditu zitzaion; ez zegoen seguru, ordea, eta ez zuen atzera egin nahi izan hala ote zen ikusteko, ez baitzuen astirik galdu nahi. Labirintoaren erdian, aurrez aurre, Bolizko Dorre distiratsua agertu zen, Fantasiaren erdigunea eta Haur Enperatrizaren egoitza.

Leku hura ikusi gabe zegoen norbaitentzat «dorre» hitzak bestelako esanahi bat har zezakeen beharbada, eliza bateko edo gaztelu bateko luzakina, alegia. Bolizko Dorrea hiri oso bat bezain handia zen. Urrutitik begiratzuz gero, mendi gailur zorrotz bat ematen zuen, barakuilu baten maskorren modura bihurritua. Punturik garaiena hodeietan barneratzen zen. Hurbildu ahala aise ikusten zen azukre kozkor hura dorre, dorretxo, kupula, teilatu, behatoki, eskailera eta balaustrada batek osatzen zutela, elkar gurutzatu eta josiak. Dorrea Fantasiako boli zurienez zegoen egina, eta xehetasun bakoitza horren bikain landua zegoen, ezen parraila delikatuz eginiko xareta ematen baitzuen.

Eraikin horiek guztiak ziren Haur Enperatrizaren gortearen bizileku: altxorzainak eta neskameak, andere jakintsuak

eta astrologoak, aztiak eta bufoiak, mezulariak, sukaldariak eta akrobatak, ekilibristak eta ipuin kontalariak, heraldoak, lorezainak, zaindaria, jostunak, zapataria eta alkimistak. Eta goi-goian, dorre bikainaren punturik gorenean, Haur Enperatriza bizi zen, magnolia pipil zuri baten itxurako pabiloi batean. Gau batzuetan, ilargi beteak bereziki harro distiratzten zuenean zeru izartsuan, bolizko hostoak irekitzen ziren, zabal-zabal, lore bikain bat osatzeko; haren erdian, Haur Enperatriza esertzen zen.

Ingumatxoak bere saguzarrarekin lur hartu zuen beheko terrazetako batean, ukuiluak zeuden lekuan, hain zuzen. Norbaitek haren etorrera iragarria zuen, bost abeltzain inperial zain zeuzkalako, zelatik jaisten laguntzeko. Haren aurrean makurtu eta ongietorri edaria eskaini zioten. Wuswusulek zurrupa txiki bat hartu zuen bolizko edalontzitik, itxurak gordetzearren, eta itzuli egin zien. Ondoren, abeltzainek zurrupa bana egin zioten, ostera makurtu eta saguzarra zalditegira eraman zuten. Guzti-guztia isilik egin zuten.

Saguzarra harentzat prestatuta zegoen lekura iritsi zenean, ez zuen ez jatekoa ez edatekoa ukitu; horren ordez, bere baitan bildu zen berehala, buruz behera zintzilikatu zen bere kakotik eta lozorroak hartu zuen, leher eginda baitzegoen. Ingumak eskatu zion ahalegina gehiegizkoa izan zen. Abeltzainek bakean utzi zuten, eta behatz puntetan alde egin zuten.

Ukuilu hartan, era askotako zelabereak zeuden: elefante arrosa eta urdin bana; grifo erraldoi bat, zeinaren aurreko aldeak arrano baten itxura zuen, eta atzeko aldeak, berriz, lehoi batena; zaldi hegodun zuri bat, zeinaren izena ezaguna izan zen garai batean Fantasiatik kanpo, baina jadanik

ahaztuta zegoen; txakur hegalaria bat; beste saguzar batzuk; baita sorgin orratzak eta tximeletak ere, bereziki zaldizko txikientzat. Beste ukuilu batzuetan, hegan egiten ez zuten zelabereak zeuden; lasterka egin, herrestatu, jauzi egin edo igeri egiten zuten. Eta garbitzeaz eta zaintzeaz arduratzen zen zaindari berezi bana zuten.

Normalena izango zen era askotako ahotsen nahasketa entzutea: marruak, oihuak, txistuak, txioak, korrokak eta karrankak. Isiltasuna nagusi zen, ordea.

38

Inguma txikia hantxe zegoen oraindik, abeltzainak utzi zuen lekuan. Bat-batean, eroria eta etsiak hartuta nabaritu zuen bere burua, zehazki zergatik jakin gabe. Gainera, leher eginda zegoen horren bidaia luzea egin ondoren. Eta lehena iritsi zela jakiteak ere ez zuen alaitzen.

—Kaixo —entzun zuen ahots bat txioka, bat-batean—. Hara nor dagoen hemen, Wuswusul adiskidea! Pozten naiz azkenean iritsi zarela ikusteaz!

Ingumak ingurura begiratu zuen, eta harridurak ilargi antzeko begiak ireki zizkion, balaustrada batean, bolizko loreontzi baten kontra, Ukuk ñimiñotarra axolagabeki bermatuta baitzegoen, kapela luze gorria astintzen zuela.

—Aiei, aiei! —esan zuen harri eta zur ingumak, eta unetxo bat igaro ondoren, berriz ere—. Aiei, aiei! —Ez zitzaion ezer burutsuagorik otu.

—Beste biak —azaldu zuen ñimiñotarrak— ez dira oraindik iritsi. Atzo goizetik nago ni hemen.

—Eta nola... aiei, aiei... lortu duzu? —galdetu zuen ingumak.

—Hara —esan zuen ñimiñotarrak, eta irribarre egin zuen etorkor samar—. Esan dizut dagoeneko lasterketa bazarakuilu bat dudala!

Ingumak bere esku arrosarekin hazkatu zuen buruko larru-ile beltz mataza.

—Haur Enperatrizarengana joan behar dut berehalakoan —esan zuen, negarti.

Ñimiñotarrak pentsakor begiratu zion.

—Mmm... —marmar egin zuen—, nik atzo eskatu nuen jada hitzordua.

—Hitzordua? —galdetu zuen ingumak—. Ezin al gara zuzenean hura ikustera joan?

—Ezetz esango nuke —esan zuen txioka ñimiñotarrak—. Luze itxaron beharra dago. Zera, nola esango nuke, mezulari andana elkartu da hemen.

—Aiei —intziri egin zuen ingumak—, nolatan?

—Hobe zerorrek begiratzen baduzu —txio egin zuen ñimiñotarrak—. Zatoz, Wuswusul maitea, zatoz.

Bideari ekin zioten biek.

Gero eta kiribil estuagoa bihurtzen zen Bolizko Dorrean gora zihoan kale nagusian, itxura bitxia zuten izaki jendetza trinkoa biltzen zen. Turbantea zeramaten jenio erraldoiak, iratxo ñimiñoak, hiru buruko trollak, nano bizardunak, maitagarri distiratsuak, ahuntz hankak zituzten faunoak, urrezko ilez estalitako larrua zuten emakumetxo basatiak, elurretako espiritu distiratsuak eta ezin konta ahala beste izaki batzuk kalean gora eta behera zebiltzan, taldetan elkartzen ziren eta ahopean hitz egiten zuten edo kokoriko jartzen ziren lurrean, eta atsekabetuta begiratzen zuten urrutira.

Wuswusulek ikusi zituenean, geldi geratu zen.

—Aiei —esan zuen—. Zer gertatzen da? Zertan dabil-tza horiek denak hemen?

—Mezulariak dira denak —azaldu zion Ukukek, isilki—, Fantasia osotik etorritako mezulariak, hain zuzen. Eta

denok guk dakargun mezu berbera dute. Askorekin hitz egin dut dagoeneko. Itxura batean, arrisku berbera sortu da nonahi.

Ingumari hasperen kexati luze batek ihes egin zion.

—Eta ba al dakite —galdetu zuen— zer den eta nondik datorren?

—Ez, beldur naiz. Inortxok ere ez daki.

—Ezta Haur Enperatrizak berak ere?

40

—Haur Enperatriza —esan zuen ñimiñotarrak aho-pean— gaixorik dago, oso gaixorik. Beharbada horixe da Fantasia osoan zabaldu den zoritxar ulertezinaren arrazoia. Orain arte, ordea, jauregi inguruan, han goian, Magnolia Pabiloian bildu den sendagile mordotik inork ezin izan du ebatzi zergatik dagoen Enperatriza gaixorik eta zer egin daitekeen hura sendatzeko. Inork ez daki sendabidea zein den.

—Hori —esan zuen ingumak, aho-pean—, aiei, hondamendia da!

—Bai —erantzun zuen ñimiñotarrak—, halaxe da.

Kinka larri hartan, Wuswusulek erabaki zuen ez ziola oraingoz hitzordurik eskatuko Haur Enperatrizari.

Bide batez, bi egun geroago Blubb argi-txakurra iritsi zen, zeina, jakina, norabide okerrean ibili zen eta itzulinguru handi bat egin zuen.

Azkenean —beste hiru egun igarota—, Piornkratzak harrijalea ere iritsi zen. Oinez etorri zen, lurra astiro zanpatzen, bat-batean, goseak amorratzen egun zenez, harrizko bizikleta irentsi baitzuen, bizigaia balitz bezala, nolabait esateko.

Itxaronaldi luzean, horren bestelakoak ziren lau mezu-lariak adiskidetu egin ziren, eta, ondoren ere, elkarrekin jarraitu zuten.

Baina hori beste istorio bat da, beste noizbait kontatze-  
koa.